# iRAKURRi, ETA ONDO PASA!




**LIBURUA**

## 'Pobreak gara, eta zer?'

Hodei eta Iratiren gurasoek lantegi berean lan egiten zuten. Enpresa krisian sartu zen, itxi egin zuten, eta langile guztiak kalean geratu ziren, Hodei eta Iratiren aita-amak tartean. Hodei gaztetxoa da, eta ez da egoeraz ohartzen; Irati, ordea, bai, eta oso kezkatuta dago etorkizunarekin. Egoeraren harira, *Hansel eta Gretel* ipuinaren istorioa burutik kendu ezinik dabil. Hansel eta Gretel bezala basoan utziko ote dituzte gurasoek?

**Xabier Mendiguren**
**Patxi Gallego**
Argitaletxea: **Elkar**




**LIBURUA**

## 'Hara!'

Amonak igerilekuan jasotzen du biloba, liburuko protagonista, eta handik, etxera eramaten du. Gero, zinemara eta erosketak egitera joaten dira. Zein ongi pasatzen duen amonarekin! Mundu errealaren eta ametsezkoaren arteko giltza duela dirudi amonak, eta bilobari batetik bestera ibiltzen laguntzen dio. Asiainek VI. Etxepare saria irabazi du istorioarekin. Testua eta marrazkiak harenak dira.

**Miren Asiain Lora**
Argitaletxeak: **Pamiela eta Kalandraka**

## DENBORA-PASAK




## 1. Dardoak

Dardo txapelketako azken txanpara Miren eta Julen iritsi dira. **Nork irabazi duen jakiteko, zenbatu lortutako puntuak.**



## 2. Bikiak

Sagarrondo handi bat du aitonak baserrian. Zuhaitz bakoitzak bere berezitasuna du, baina bi berdin-berdinak dira. **Zein?**




**Erantzunak**

**1.-** Mirenek 1.125 puntu lortu ditu, Julenek, 1.025. Miren izan da, beraz, irabazlea. **2.-** c eta f.